



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Kontratu hau arautzen duten administrazio-baldintza zehatzen Agiriaren 20. atalaren gainean sortu diren zalantzak ikusirik, honako hau adierazi nahi dugu:

20. klausularen e) hizkian bi gauza eskatzen zaizkie esleipendunei: batetik, klasifikatuta egotea eta, bestetik, agirietan aurreikusitako langileak eta makineria kontratuari esleitzeko konpromisoa hartzea.

Halaber, klausula horren bukaeran honakoa jasotzen da: *Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriak aurkeztuko dira (...)*. Hori esaten denean klasifikazioari buruz ari dela ulertu behar da. Hau da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64. Artikuluan jasotakoaren arabera, baliabide materialak eta giza baliabideak kontratuari esleitzeko konpromisoa klasifikazioaren osagarria da eta ezingo da *Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin edo antzekoekin* egiaztatu. Zentzu horretan, eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztuko duen esleipendunak egiaztatu beharko du konpromiso horiek betetzen dituela; horretarako dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu kontratuaren esleipena egin aurretik, horrela ezarrita baitago 151.2. artikuluan.

Horrezaz gain, agirietan zehatz-mehatz jasotzen da honako hau: **Lizitatuzaileek euren eskaintzetan zehaztuko dituzten baliabide materialak edo giza baliabideak kontratuari atxikiko zaizkio eta funtsezko kontratu betebeharraren izaera izango du.** Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldintza hori ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoitzat jo daiteke, 223.f) artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Ante las dudas surgidas en relación al apartado 20 de los Pliegos de Cláusulas Administrativas que rigen el presente contrato, se quiere manifestar lo siguiente:

En la letra e) de la cláusula 20, se le exige a los contratistas, por una parte, que estén clasificados, y por otra, su compromiso de adscribir al contrato el personal y la maquinaria previstos en los pliegos.

Cuando al final de esa misma cláusula se establece que, *las circunstancias señaladas en las anteriores letras a), b) y e) podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Contratistas y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca (...)*, se debe entender que se está haciendo referencia únicamente a la clasificación. Es decir, tal y como establece el artículo 64 del TRLCSP, el compromiso de adscribir al contrato los medios materiales y personales descritos, es complementario a la clasificación y no puede acreditarse mediante *una certificación del Registro Oficial de Contratistas y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca* o similares. En ese sentido, el cumplimiento de tales compromisos deberá acreditarlo quien haya presentado la oferta económica más ventajosa, tal y como establece el artículo 151.2, antes de la adjudicación del contrato con la presentación de los correspondientes certificados.

Además, tal y como se establece en los propios pliegos, **los medios materiales o personales que los licitadores especifiquen en sus ofertas que serán adscritos al contrato tendrá carácter de obligación contractual esencial**, por lo que, al amparo de lo previsto en el art. 64.2 del TRLCSP, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del mismo a los efectos señalados en el art. 223.f).

Legazpin, 2014ko ekainaren 3an  
ALKATEA  
Kepa Urzelai Goitia